



**Ndank Ndank Senegaldar eta euskaldunen arteko kulturartekotasuna eta lankidetzaz bultzatzen duen Bergarako elkarte da.**

## **07 NDANK NDANK Elkartearekin solasean:**

—Aizu Odei, ba al dakizu zer den Ndank Ndank elkarte?

—Bai bai, jakizu, duela gutxi egiten dutenari buruzko bideo bat ikusi nuen, euskaldunetz.

—Eta senegaldarrez.

—Bai bai, euskaldunetz eta senegaldarrez osatutako elkarte da, kulturartekotasuna eta Senegalekin lankidetzaz bultzatzeko sortua.

—Gauza asko egin dituzte elkarrekin, ikusi al duzu zein mural polita marraztu zuten?

—Bai, bihotz bat itzali eta arte obra bat piztu da, zeinen ederra.

—Kulturartekotasuna, lankidetzaz...

—Bai, hitz ederrak dira.

—Baina batzuetan zailak irudikatzen...

—Bai, neri ere kostatu egiten zait ulertzea batzuetan...

—Jaso eta eman, Odei.

—Eman eta Jaso.

—Hartu pilota .

—Zer ikusten duzu?

—Ba pilota bat... borobila...

—Eta zer gehiago?

—Eeeee....

—Nik eman dizudala, zurekin partekatu dudala.

—Ah bai! Eman didazula eta nik jaso dudala. Tori!



—Zer ikusten duzu?

—Pilota eman didala, eta pozik dagoela.

—Zer sentitzen duzu?

—Ba Lamine horren pozik ikusita nik ere poza!

—Ah, jasotzen duenak ere poza sentitzen du.

—Eta ematen duenak ere.

—Hori da elkartasuna, lankidetzaz..

—Nik zuentzat, zuek neretzat, zuengandik eta nigandik, ndank ndank, guztiontzat!

—NDANK NDANK, poliki poliki. Tori pilota Odei.

—Milesker.

—Emadazu berriz.

—Noski, tori.

—Milesker.

—Eta horrela noiz arte?

—Horrela beti Odei, beti.

## 08 ELKARRI

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Odei Barroso Gomila

Ahotsak: LaBasu eta Nico Sarrbojand

Sérères hizkuntzan esaldiak: Mamadou Sarr eta Nico Sarrbojand

Panderoa: Garikoitz Aranzabal

Irrintzia: Mertxe Rodriguez Serrano

Batera sortu diren margoetan  
Bakoitzak ezarri du bere kolorea  
Ukitzen diren sustrai sakonetan  
Zerbait bada gordea

Ezagutzaren eremuetan  
Zerbait ikasten da egunero  
Ezer ez baita urrun ikusten  
Behin hurbildu ta gero

Lurreko hautsak laztandu ditugu  
Zerua pausatu dadin ortzimugetan  
Biharamunak esnatu zaizkigu  
Bihotz bat eskuetan

Argiz jantzi den irrifar batek  
Aurpegi asko marrazten ditu  
Erritmo berriz bustitzen gara  
Entzun eta sentitu

Ngario ngario ndioko-njal

*(Etorri, etorri!)*

I mbokator njal Ndef léng

*(Eskerrik asko!)*

Fa I mbokator nanir njal

*(Bat izango gara eta elkarrekin egingo dugu lan)*

O Sik méné I Sik mana

*(Elkar ulertu eta elkarrekin lan egin behar dugu)*

Bizipoza

Yam adna fané ino fop Ndéroune

*(Mundua guztiontzat baita.)*

Rew fi goor, Ndigil

*(Egia!)*

Bizipoza

Dantza egin, ikasi, jolastu,

Elkarrengandik jaso eta elkarrekin aberastu,

Elkar entzun, ulertu, solastu,

Elkarri eman eta geroa marraztu (BIS).